


NEMESIO ETXANIZ APAIZA, OMENDUA



Ekanduz daukaguz gaur omenaldiak. Eta nik ez ditut txarto ikusten. Edozein arlotan guri ikasbide bikaina itxiz igaro ziren

gizaseme onak, jakintsuak eta trebeak izan beitez ondorengoen-
tzat eredu ta jarraibide.

Aurten, azaroaren 29-an guk Olerti-Eguna Larrean. Poesi-
jardunari eskiñitako egun onetan, ez dugu olerkia bakarrik go-
raltzen, baita aurreko urtean aukeratutako euskal idazle edo
olerkari sonatu bat be: aurtengo N. Etxaniz izan zan aukeratua.
Eta orrela egin genduan, gozo ta biozti.

«Euskerazaintza», euskeraren erri akademiak be, aurretik
erabagita eukanez beste ainbeste egin eban Azkoiti'n, aren jai-
terrian, ango Udaletxeak eta erri osoak parte arturik. «Etxaniz»-
tar Nemesio azkoitiar apaiz euskaltzaleri Omenaldia, Azkotia'n
1987'go azaroaren 28'an» ifioan egitarauak.

Azkoitin jaiotako Etxaniz 1899'go gabonillaren 19'an, eta
Donosti'n il zan 1982'go urtarrillaren 27'an, eta Azkoiti'n obira-
tua da. Bergara'n, Deba'n eta Donosti'n egin zituen bere apaiz-
lanak. Apaiz zintzo ta langille nekagaitza, euskaltzale sutsua, erri-
maitale, olerkari bizia, euskal abestien barrizaille bikain, antzerki
idazle ez exkasa.

Euskerazko lan asko ditu berak osotuak. Ona batzuk: «Kris-
tau Ikasbidea bertsoetan», «nola idatzi euskeraz», «Arralde» eleza-
rra, «Kanta kantari nator», «Izeba aberatsa» (antzerkia), «Irulearen
negarra» (antzerkia), «gabak zekarren eguna» (antzerkia), «Maite
ere neurritz», «Zotzean bizi», «gabon-zauriak», «Kontu kontari»
(ipuiñak), «Lur berri-billa, aurreko lan askoz ornidutako liburu
mardula, birritan argitaratua; izkuntzak ikasteko CCC metodua
euskeraz, eta abar.

Onan irakurten da aren idatzi batean: «Ni, euskera lanean,
oneraño eldu naiz. Zuek, ortik aurreña joka ezazue bikain, gure
izkuntzaren burruka irabazi arte».

Omena egiterakoan, amaiketako meza nagusitarako ainbes-
te apaiz zuriz jantzita altaran, eleiz barrua jentez beterik eta ko-
ruan «Iraurgi» abesbatza. Dana euskeraz fiñ baizen samur. Zes-

tua'ko erretore dan Nemesio'ren illobak egin eban ardiko me-
zatan, baita itzaldi labur beroa be. Meza eder sentikorra.

Ondoren kale nagusiaren zear, banda soifutun, Etxaniz jaio
zan etxe aurrera. Emen estalgetu zen Udalak eta Euskerazain-
tzek marmol zuria. Onela diño: «Etxaniz'tar Nemesio apaiz eus-
kal-zalea, olerkari, musikari ta antzerti idazlea, etxe onetan
-1899-XII-19'an- jaio zan. Donostia'n 1982-I-28'an il zan.
1987-XI-28'an jaioterriko omenaldia Udalak eta Euskerazain-
tzak».

Etxeko ormarrian gomutagarria agertu-azo ondoren, Uda-
leaxearen aurrean musika taldearen ekinaldia. Gero, 12,45'etan
goiko areto luze nasaira. Eta omenaldiko itzaldiak, edo akademi-
saioa. Iru mintzaldi izan ziran N. Etxaniz'en gaitasunak azalduz
batez be. I'go nik «Don Nemesio olerkari» (ondoren daukazu
nire esana), 2'gn. «Don Nemesio Musikari, Iturria'tar Karmel
frantziskotarraren txanda, ta 3'gn. «Don Nemesio Ekintzaille»
erriaren aldeko lanean egin ebana, Olazar'tar Martin euskera-
tzainkoak adierazo euskun jarduna.

Beste maiburuko batzuk be itz egin eban, Larrañaga alkate
jaunak, Eusko Jauriaritzako Ordezkariak, N. Etxaniz'en arreba
lekainak eta abar. Bakotzak berea ta ekintzari egokionez,
ederki ta txairo.

Amaitzeko, «Iraurgi» abesbatza bere saioa, benetan samur ta
gozo abesturik Nemesio Etxaniz'en abesti batzuk berariz auke-
ratuak. Gero, ordu bi t'erdia zirala-ta, «Iturri» jatetxera bazkal-
tzera.

A.O.